

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA ERAIKITZEKO LANAK

MENDITXO TUNELA ZULATUTA, DONOSTIAKO 2. INGURABIDEKO LANAK BUKATZEKO OZTOPORIK NAGUSIENA GAINDITU DA

Ondorengo asteetan aurrerapen garrantzitsuak egingo dira obraren funtsezko puntuetan: karga probak egingo dira Lasarte-Oriako eta Urumeako zubibideetan (azkeneko hori Euskadiko luzeena da, kilometro batekoa) eta azken hilabete hauetan AP-8 autobidean, Erreterian, dagoen desbideraketa kenduko da, puntu horretan autobidearen eta 2. ingurabidearen arteko lotunea bukatutzat emateko.

Donostiako 2. ingurabidearen eraikuntza prozesuan funtsezko aurrera pausua eman da gaur gauean, Astigarragan, Menditxo tunelaren eskuineko hodia zulatzea lortu baita. Tunelaren bi muturrak elkartzea lortu zuen zulaketa atzo, asteartea, gaueko 22:00etan gertatu zen (2010eko otsailaren 23a). Azkenean, amaiera ezin hobea eman zaio hainbeste hilabetetan, zulatu beharreko lur sailaren zailtasunen ondorioz, kontu handiz egin behar izan den zulaketa lanari.

Bigarren ingurabidea egiteko lanetan izandako aurrerapen berri honek, datozen asteetan Lasarte-Oriako eta Urumeako zubibideetan (azkeneko hori Euskadiko luzeena, kilometro batekoa) egingo diren karga probak eta Erreteriako lotunea egiteko AP-8 autobidean jarritako desbideraketa kentzeko lanak gehituko zaizkiolarik, azpiegitura hori irekitzeko egunera hurbiltzen gaitu, 2010ean bertan izango baita.

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEAREN DATUAK

***Errepide mota:** Autobidea

***Luzera:** 17 kilometro (autobide enborra)

***Herriak:** -Errenteria
-Oiartzun
-Astigarraga
-Donostia-San Sebastián
-Hernani
-Lasarte-Oria
-Usurbil.

1)Errenteria – Astigarraga (Urumeako autobiarekiko lotunea)

Luzera: 8,4 kilometro

Lerroak: 3, noranzko bakoitzean (guztira, 6)

2)Astigarraga – Lasarte (N-lekiko lotunea)

Luzera: 4,5 kilometro

Lerroak: 2, noranzko bakoitzean (guztira, 4)

3)Lasarte – Aritzeta (A-8rekiko lotunea)

Luzera: 3,3 kilometro

Lerroak: 2, noranzko bakoitzean (guztira, 4)

**2. eta 3. zatiak batera egiten ari dira.*

***Egiturak:** -Zubibideak (14)

-Tunelak (3)

-Tunel artifizialak (3)

-Gaineko pasabideak (16)

-Azpiko pasabideak (10)

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA

Donostiako bigarren ingurabidea 17 kilometroko autobide zati bat izango da, Donostia hegoaldetik inguratuko duena, Erreterian, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian eta Usurbilen barrena pasatuz. **Donostiako egungo saihebidia arinduko du.**

Donostiako saihebidetan gero eta trafiko handiagoa dago –toki jakin batzuetan egunean 100.000 ibilgailutik gorakoa izatera iritsi da–, eta behar-beharrezkoa bihurtu da Donostiako 2. ingurabidea egitea, **Gipuzkoan pasadizoan dabilen trafikoa hartzeko eta Donostiako sarrera-irteerak arintzeko.**

Proiektu handi horrek aztertzen ari garen bide-zatiko arazoak konponduko ditu. Proiektua bi zatitan banatu da eta zati bakoitzerako eraikuntza proiektu bana egin da.

Lehenengo zatia Aritzetaren eta Urumeako lotunearen artean egingo da, eta bigarrena, berriz, lotune horren eta A-8 autobidearen Erreteriarako lotunearen artean. Beste proiektu batean tuneletako instalazioak eta Erreteriarako planeamendu berriko hegoaldeko bidea zehaztu dira.

Autobide berriaren trazatua mendebaldea-ekialdea noranzkoaren ia paraleloan doa, Donostia hegoaldetik inguratuz. Bi muturretan A-8 autobidearekin lotzen da eta By-Pass-a egiten duela esan daiteke.. **Halaber, N-I errepidearekin Lasarten eta Urumeako autobiarekin Astigarragan ere lotzen da. Beraz, lau lotune izango ditu Gipuzkoan eraikitzen ari den kapazitate handiko sarearekin.**

Kapazitate handiko bide sare horrek gaur egun Donostia inguruan dugun trafiko handiari erantzun bat emango dio, azpiegitura berrira eramanez eta, ondorioz, hiritik aldentuz soilik pasoa doazen eta hirira bertara sartu beharrik ez duten ibilgailuak, batez ere, salgaien nazioarteko garraioa egiten dutenak.

Guztira 17 kilometro izango ditu, eta orografia zail batetik doa Usurbil, Lasarte, Donostia, Hernani, Astigarraga, Erreteria eta Oiartzundik igaroz.